



SALATUTAKO LANGILEEKIN

Elkartasuna LA LUCHA NO ES DELITO

Bizkaiko metalaren, PCBren, TUBACEXen, PETRONOREn, Artiachen, Alconzaren... borroken ondorioz, asko izan dira jipoitutako, inputatutako eta isun ekonomikoekin zigortutako langileak. Pertsona horietako batzuk epaiketaren zain daude, eta espetxe-zigor oso altuak eskatzen dizkiete. Egoera honen aurrean, salatu nahi dugu salaketa horien guztien atzean langile klasearen borroka kriminalizatzeko, sindikalismoa kriminalizatzeko, grebarako eskubidea kriminalizatzeko eta, azken batean, lan-baldintza eta bizi-baldintza duinak defendatzeko borroka-ahalegin oro kriminalizatzeko saiakera bat ezkutatzen dela.

Kriminalizazio saiakera hori ez da kasualitatea, erabaki politiko baten ondorioa baizik. Erabaki hori erakundeen eskutik etorri da, bereziki, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Gatazka guztietan, Eusko Jaurlaritzaren lehen ekarpena izan da Ertzaintza bidaltzea protestak erreprimitzera, jipoitzera, akusazio faltsupean atxilotzera eta Mozal Legea langile askori aplikatzera. Eusko Jaurlaritzak lehentasuna eman beharko lioke ekarpen eta inplikazio handiagoa izateari, negoziazio-mahaietan benetako oreka egon dadin bi aldeek artean.

Denbora honetan guztian, Eusko Jaurlaritzak ez du bilatu Bizkaiko metaleko, PCBko, Tubacexeko eta Petronorreko langileak babestea enpresa horiek EEEdo ABEEk mahai gainean jarri zituztenean, ezta ere EEE eta ABEE horien aurkako epai judizialak izan zirenean. Era berean ez dugu ikusi greba egiteagatik kaleratuak izan diren metaleko langileak babesten, greba egin ez dezaten mehatxatuak izan diren langileak defendatzen, egunero euren lan-eskubideak urratuak ikusten dituzten langileen ondoan edo prekaritatean murgilduta bizi diren langileekin, batzuetan osasuna galtzen dutenak eta gehiegitan bizitza ere. Horrez gain, enpresariak ez ditugu ikusi epaiketei aurre egiten, espetxeratzeko eskaerei aurre egiten, oraintxe aipatu duguna bezalako eskubide urraketak gauzatu badituzte ere. Erabateko inpunitatearekin jarduten dute norbaitek ahalbide-tzen duelako, sistema osoak ahalbidetzen duelako.

Jipoitutako, isuna jarri zaien edo inputatutako pertsona guztiek euren enplegua eta lan-baldintzak eta euren lankide guztienak defendatu dituzte. Borroka da langileek duten mekanismo bakarra inposaketari, prekaritateari eta pobrezari aurre egiteko eta patronalen aurrean negoziazioan presio handiagoa izateko. Patronalak legeak ditu, eta Gobernuak ere bai. Langileek borroka baino ez dute, tresna legítimo gisa, langile klasearentzako eskubideak defendatzeko eta konkistatzeko eta lege horien aldaketan eragin ahal izateko.

Hori dela eta, argi eta garbi diogu borroka sindikala ezin dela inoiz delitu izan, hainbat borrokan erakutsi den bezala. Borroka horien ondoren, negoziazioetan indarrak orekatzea lortu da, langile guztientzat baldintza eta eskubide hobeak lortzeko.

Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu langileen borroka kriminalizatzeari utz diezaiola, Euskal Herriko langileen arteko borroken inguruan duen jarrera aldatu dezala, eta indarrak gabe utz ditzala Bizkaiko metaleko, Tubacexen, PCBn, Petronorren eta beste edozein lan-gatazkatan jarritako isunak eta salaketak.

Atxikimenduak:

CCOO, LAB, ESK, CNT, CGT, HIRU, STEILAS



SALATUTAKO LANGILEEKIN

Elkartasuna LA LUCHA NO ES DELITO

Como consecuencia de varios conflictos laborales (Metal de Bizkaia, Tubacex, PCB, Petronor, Artiach, Alconza...) han sido numerosas las personas trabajadoras apaleadas, imputadas y sancionadas con multas económicas. Algunas de estas personas están a la espera de juicio con peticiones de penas de cárcel muy altas. Ante esta situación queremos denunciar que tras todas estas acusaciones lo que se esconde es un intento de criminalizar la lucha de la clase trabajadora, criminalizar el sindicalismo, criminalizar el derecho a la huelga, en definitiva, criminalizar cualquier intento de lucha en defensa de unas condiciones de trabajo y de vida dignas.

Este intento de criminalización no es casual, es consecuencia de una decisión política. Esta decisión ha venido de la mano de las instituciones, especialmente, del Gobierno Vasco. En todos los conflictos, la primera aportación del Gobierno Vasco ha sido enviar a la Ertzaintza a reprimir protestas, apaleando, deteniendo bajo falsas acusaciones y aplicando la Ley Mordaza a numerosos trabajadores y trabajadoras. El Gobierno Vasco debería priorizar el tener una mayor aportación e implicación para que en las mesas de negociación haya un equilibrio real entre ambas partes.

En todo este tiempo, el Gobierno Vasco no ha buscado proteger a los trabajadores y trabajadoras del metal de Bizkaia, de PCB, de Tubacex y de Petronor, cuando éstas empresas pusieron los EREs o ERTEs encima de la mesa, que luego incluso hubo sentencias judiciales contrarias a estos EREs y ERTEs; tampoco les hemos visto defender a los trabajadores y trabajadoras que han sido amenazadas para que no secunden la huelga; tampoco les hemos visto ni les vemos junto a trabajadores y trabajadoras que a diario ven vulnerados sus derechos laborales o viven inmersas en la precariedad, que a veces pierden la salud y demasiadas veces la vida. Tampoco hemos visto a ningún representante de la patronal detenido y enfrentándose a un juicio ante la sangría incesante de accidentes laborales y muertes por falta de medidas de prevención o por imponer situaciones de precariedad totalmente abusivas. Actúan con total impunidad porque alguien lo permite.

Todas las personas apaleadas, multadas o imputadas, solo han defendido el empleo y las condiciones laborales propias y de todos y todas nuestras compañeras. La lucha es el único mecanismo que tenemos los y las trabajadoras para hacer frente a la imposición, a la precariedad y a la pobreza y poder tener mayor capacidad de presión en la negociación frente a las patronales. La patronal tiene las leyes y a los Gobiernos de su parte. Los y las trabajadoras solo tienen la lucha como herramienta legítima, para defender y conquistar derechos para la clase trabajadora y poder incidir en el cambio de éstas leyes.

Por ello, decimos alto y claro que la lucha sindical nunca puede ser un delito, como se ha demostrado en numerosas luchas tras las cuales se han conseguido equilibrar las fuerzas en las negociaciones y poder así conseguir mejores condiciones y derechos para el conjunto de los y las trabajadoras.

Pedimos al Gobierno Vasco que deje de criminalizar la lucha obrera, resitúe su posición con respecto a las luchas de trabajadores y trabajadoras en Euskal Herria, y deje sin efecto las multas y denuncias interpuestas en la huelga del metal de Bizkaia, en Tubacex, en PCB, en Petronor y en cualquier otro conflicto laboral.

Adhesiones:

CCOO, LAB, ESK, CNT, CGT, HIRU, STEILAS